



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

MAHASTIZAINZAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA, 2015/08/28

Astea onuragarria izan da mahatsa heltzeko, gau freskoak eta egun ez beroegiak egon direlako. Hilaren 22an, larunbata, izandako ekaitzak mahastia freskatu zuen, eta hori ona izan zen. Aldiz, atzo eta gaur tenperatura altuagoa egon da, eta sargori handiagoa egin du. Datorren asterako euria eman dute.

Dena den, mahastiak itxura ona du: mahatsa osasuntsu dago eta mahats parra abuztuaren hasieran bageunde bezala dago. Kalitate onekoa izango dela ematen du. Nahiz eta mahastitik mahastira aldea egon, errendimendua erraz iritsiko da Kontseilu Erregulatzailerak ezarritako mugara. Horixe da orokorrean ikus daitekeena soilik buelta bat emanda Arabako Errioxako mahastitik, Bastidatik Moreda Arabara.

Edonola ere, arrisku handia dago. Espero den gradua (heldutasun industrial) irailaren erdialderako espero dena da, baina heldutasun fenolikoa motelago ari da gauzatzen, batez ere mahats gehien daukaten mahastietan, eta gainera esan behar da azala ez dela nahiko genukeen besteko leuna. Ez hori bakarrik; izan ere, alde handia dago heldutasunean lurzatitik lurzatira eta mahatsondotik mahatsondora; baita mahatsondo bereko mahats mordotik mahats mordora ere, mahatsondoak zenbat mahats daukan hartu behar baita kontuan. Bukatzeko, erabat kontuan izan beharreko gauza bat: iaz botritis asko egon zen; hortaz, inokulua, erresistentzia egiturak, bertan daude, eta garatu egin daitezke baldin eta garatzeko baldintzak onak badira. Jada ikus daiteke botritis gune bat mahats zurian eta zenbait mahats ale beltzetan. Komenigarria litzateke hori tratatzea, baina kontuan izanda datorren asterako euria eman dutela eta errespetatu egin behar direla segurtasun epeak.

Kazkabarrak (uztailean eta abuztuan) eragindako lurzatiei dagokienez, zauriak orbaindu dira. Hostaila berria ateratzeak 10-12 eguneko atzerapena eragin du behintzat, lurzati mugakideekin alderatuz; beraz, bereziki zaindu beharko dira eta botritisaren aurka erabili beharreko tratamenduen bidez babestu beharko dira, betiere segurtasun epea zainduta.

Apurka-apurka mahats zuriaren barietate berriak (sauvignon blanc, chardonnay, verdejo eta tempranillo zuria) biltzen ari gara, eta baliteke 7-10 egunetan viura moztzen hastea. Oro har esan daiteke tenpranillo beltza irailaren 21eko asteen biltzen hasiko dela Arabako Errioxan.

Hori guztia pentsaturik eguraldia aldeko izango dugula egun gutxi batzuk gehiago. Hala ere, mahats asko daukaten edo kalteberagoak diren mahastietan, eguraldia kaskartzen bada litekeena mahatsa arinago garatzea –horri dagokionez kontuan izan behar da joan den kanpainako egoera–. Beharrezkoa da zuhurtziaz jokatzeko, eta adi egotea zer dioten eguraldiaren iragarpenek eta zer eguraldi dagoen, al bait azkarren jarduteko, beharrezkoa bada. Halakoetan ez da alde batera uzten “presazko” mahats bilketa egitea, kaltea handiagoa izan ez dadin.

Mordoak mehatzea mordo asko dauzkaten eta mahats pilaketa handia ageri duten mahatsondoetan, eta hostoak kentzea mordoa aireztatzeko, lehendik hartu behar izan diren neurriak dira, baina oraindik hartzeko moduan gaude. Berandu hobe inoiz ez baino; hala, geroago egon daitezkeen arazoak arindu ditzakegu. Hurrengo astetik aurrera ezin izango da tratamendu kimikoez baliatu, segurtasun epeak direla eta (oro har 21 egun), salbu eta harriak eragindako mahatsondoen kasuan, mahats bilketa beranduago egingo baita haietan. Gehienez ere hondakinik uzten ez duten produktu lehortzaileak erabil ditzakegu (tratamendu garestiak dira).

Garaia iristean, zer ardo bilatzen ari garen, horretarako mahats egokia daukaten lurzatietan hasiko gara mahatsa biltzen; baita erortzeko zorian dauden mahastietan ere, nahiz eta mahatsa ez egon biltzeko momenturik onenean. Aurten, iaz bezala, funtsezkoa da mahats bilketaren hurrenkera, antolamendua eta estrategia.

Laburbilduz, mahastia egoera onean dago, arrisku handia dago, eta mahatsa garaia baino lehenago bilduko da era hautatuan. Alerta mailari eutsi behar zaio.

Datorren astean aztertzen hasiko gara heldutasunaren inguruko gorabeherak, beti bezala Ardoaren Etxean; hortaz, txosten hauetan emandako argibideak irakur itzazue gaurtik aurrera.